

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zubiarte Euskaltegiak urtarrilaren 31 arte ireki du otsailetik ekainera egingo diren ikastaroen matrikula epea

Ikastaro presentzialak, auto-ikaskuntzakoak eta mintza ikastaroak eskaintzen dira, baita txandaka lan egiten dutenendako eta gurasoendako ikastetxeetan

Viernes, 24 de enero de 2014

[Zubiarte Euskalategi publikoak](#) ireki du izena emateko epea. Eskainiko diren helduendako euskara ikastaroak otsailetik ekainera bitartean egingo dira. Izena ematea hurrengo urtarrilaren 31 bitartean egingo da Zubiarteko eraikuntzan, Uhartan, Zubiarte kalean, 13 zenbakian.

Ikastaro estentsiboetan 10 orduko ikastaroak eskaintzen dira, goizez eta arratsaldean, A1, A2, B1 eta B2 mailatan; txandaka lan egiten duten ikasleentzako taldeak; ikastetxeetan gurasoendako asteroko 6 orduko ikastaroak; A1, A2, B1 eta B2 mailatan autoikaskuntza ikastaroak, asteroko 4 ordu on line eta 2 ordu mintza; B1, B2 eta C1-EGA mailetakoko asteroko 4 edo 5 orduko ikastaroak; eta B2 mailan asteroko 2 orduko mintza saioak.

Tasak, egiten den ikastaroaren arabera, aldatu egiten dira. 10 orduko ikastaro estentsibo batek 88,30 euro balio du; aldi berean, autoikaskuntza ikastaroak 61,40 euro balio du. Kategoría orokorreko familia ugarietako kideek %50eko deskontua izanen dute matrikulan eta kategoría berezikoek ez dute ordaindu beharko.